



KONTRATAZIO ZERRENDEN KUDEAKETA ETA OPOSIZIOA BEREIZI. ZERRENDA INTEGRATUA, ORAIN!

Hezkuntza Departamentuko kontratazio zerrendei buruz indarra duen araudiak (51/2018 Foru Agindua) bi ondorio lazgarri ditu. Bata da milaka maisu-maistra ari direla oposizioak prestatzen, ez funtzionario plaza bat eskuratzeko, datorren urtean lan egin ahal izateko baizik. Haien lan bitzta eta bitzta pertsonala bateragarri egiteaz gain (maiz zaila suertatzen dena, are gehiago sektorearen feminizazioa kontuan hartuta), oposizioan nahitaez emaitza ona atera behar dute. Ondorioz, baja kopurua izugarri handitzen da irakasleen artean.

Arazoa okerragotzen da ezen kontratazio zerrendan diren langileek ez baitute parte hartzen Lanpostuen Esleipen Telematikoan. Nahiago dute etxean ikasten gelditu, jakinik hurrengo zerrendetan oposizioak duen garrantzia, eta hilabete hauetako esperientziak ez duela zipitzik balioko haietan.

Egoera honen aurrean, premiazkoa da araudia berritzea eta itzultzea oposizioekin lotu gabeko kontratazio zerrendak kudeatzeko sistemara, salbuetsirik oposizioa gainditu bai, baina funtzionario bihurtzen ez diren pertsonak urte bateko lanaren adinako esperientziaren puntuak izanen lituzketela. Orobat, urtero egin beharko litzateke zerrendetako langileen birbaremazioa (Nafarroan halaxe zen 2007 arte), kontuan hartuta lortutako esperientzia eta beste merezimendu batzuk. Horrela, bajak betetzeko pizgarria izanen litzateke, esperientzia hori hurrengo errebaremazioan baliaturik, aipatu pertsonak hobeki baileudeke zerrendetan.

Finean, gakoa da eratzea zerrenda kudeatzeko sistema integratu bat, irakasle guztien gaikuntzak eta eskakizunak jasoko lituzkeena. Bestalde, komenigarria litzateke Lanpostuen Esleipen Automatikoa egunero egitea (ez astean hiru aldiz bakarrik) eta ikasturte osoko kontratuak ezartzea ordezkapenak berehala egiteko, batez ere Haur eta Lehen Hezkuntzako tutoreentzat. Eta zenbait zerrenda ere ireki behar dira, agortuta baitaude.

Iruñan, 2019ko apirilaren 11n



www.steilas.eus

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus